

# Laugarren bilera



Sinodo-seneko Eleizaren alde  
alkartasuna | partaidetza | misioa

## **ELIZAN ETA GIZARTEAN, ELKARRIZKETAN JARDUNEZ ADITZERA EMATEN DA ESPIRITUA**

Elkarrizketa, iraunkortasun eta apaltasunezko bidea da; isiltasunak eta sufrimenduak barne hartzen ditu, baina Espirituak aditzera emateko ezinbesteko dituen norbanako eta elkarten esperientzia jasotzeko bide da.

### **1.- OTOITZA**

Zati hau bileraren hasieran egingo bada ere, egokia da partaide bakoitzak aurretik etxean prestatzea.

- **Laguntza-erregua Espiritu Santuari bilerari ekiteko:**  
"Adsumus, Sancte Spiritus"...

- **San Paulo Apostoluak Erromatarrei idatzitako epistolatik (12,1-8)**

«Senideok, Jainkoaren maitasunagatik eskatzen dizuet eskain ditzazuela zeuen buruak opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atsegingarri. Hori da egiazko zuen kultura. Ez egokitu mundu honen irizietara, eraberi zaitezte baizik, zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina.

Jainkoak eman didan dohainaren izenean, hau diotsuet guztioi eta bakoitzari: ez hartu zeuen burua behar den baino handiagotzat; izan zaitezte neurritsu, Jainkoak bakoitzari eman dion sinesmenaren arabera. Izan ere, gorputza bat den arren, atal asko ditu, eta ez dute atal guztiek eginkizun bera; berdin guk ere: asko garen arren, Kristorekin elkarturik gorputz bat egiten dugu eta guztiok bata bestearen atal gara. Dohain ezberdinak ditugu, Jainkoak eman nahi izan dizkigun araberakoak. Beraz, Jainkoaren izenean mintzo denak iragar beza Jainkoaren hitza sinesmenari dagokionez; Jainkoak zerbitzari egin duena saia bedi zerbitzuan; irakaslea irakasten; adore-emailea adore ematen. Bere ondasunak banatzen dituenak bana bitza eskuzabaltasunez; buru egiten duenak egin beza arduraz; erruki-egintzak egiten dituenak, alaitasunez».

(ISILUNEA)

## - Prestatzeko Agiritik (PA 2 eta 9)

Bi idazkietako bat aukeratu.

“ Funtsezko galderak bultzatu eta gidatu egiten gaitu: nola gauzatzen da gaur, maila desberdinetan (lekuko mailan nahiz unibertsalean), Elizari, bere ardura-pean utzitako misioaren arabera, Berri Ona iragartzeko bide den “elkarrekin joate” hori, eta zein urrats eskatzen digu Espirituak sinodo-seneko Eliza bezala hazteko?

Elkarrekin bide horretan aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa dogu, hai-zearen antzera, edonondik jotzen duen, «entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan» (Jn 3, 8) Espirituari entzutea, zalan-tzarik gabe, bidean aurkituko ditugun ezustekoetara irekita iraunez. Honela, apurka-apurka umatuko diren sinodo-bihurtzearen fruituak jasotzen hastea ekarriko digun bizitasuna aktibatzen da. Elizaren bizi-kalitaterako garrantzi handia duten helburuak dira eta baita Bataio eta Sendotzaren bidez partaide garen misio ebanjelizatzailearen garapenerako ere (PA 2).

“ Sinodo-senez jokatzea da Elizak aukeratu behar duen bidea, Espirituaren eraginez eta Hitza entzunez etengabe berritzeko deia baita. Elizarentzat eta erakundeentzat jasotako misioaren araberako etorkizun anitza irudikatzen gaitasuna izango badugu, entzute, elkarte entzute, elkarrizketa eta bereizketarako prozesuak martxan jartzeko erabaki argia izan beha dugu, guztiek eta bakoitzak parte hartzeko eta ekarpena egiteko aukera izan dezagun... «Bidea elkarrekin egiteko» Espirituari bere lana egiten utzi behar diogu benetako sinodo-pentsaeran hezi gaitzan, ausart eta aske bihurtze-prozesuari ekinez, hau gabe ezinezkoa litzateke-eta «berriztatze iraunkorra, Elizak berak ere, giza eta mundu honetako erakunde izanik, ezinbesteko duena» (UR, 6; ik. EG, 26) (PA 9).

(ISILUNEA)

- **Otoitz-giroan**, idazki hauek eta geure bizipena kontuan hartuta, **hausnar ditzagun ondorengo galderok:**

**Gure Elizan, zeintzuk dira elkarrizketan jarduteko leku, eremu eta erak? Zein esperientzia ezagutzen duzu edo bizi izan duzu Elizan elkarrekin azterketa eta hausnarketa egiteko, bilatzeko, bereizketa egiteko?**

**Nola aurre egiten zaie ikuspuntu desberdinei, gatazkei eta zailtasunei?**

**Zein hartu-eman du Elizak beste kristau sinesmen batzuetako kideekin eta gizarteko beste sektore batzuekin eta, dagokionean, nola ikasten du horiengandik?**

(ISILUNEA)

## **2.- BILERAREN GARAPENA**

- **Talde kide bakoitzak batera** jarriko du bere otoitzaren eta galderen inguruko hausnarketaren emaitza. **Entzun egingo dugu bakarrik (ez da eztabaidarik izango).**

**Jarraian, isilunea egin.**

Entzundakoa barneratzeko unea da.

(ISILUNEA)

- **Partaide bakoitzak entzundakoak aditzera eman diona** eta isilunean barneratu duena batera jarriko du. Elkarrizketan jardun daiteke, baina entzutea eta errespetua sustatuz, Espiritua taldekide guztien berben bitartez agertzen zaigula jakinda.

**Berriz ere isilunea egin.**

(ISILUNEA)

- **Partaideek aurreko ataletatik deigarrien gertatu zaiena jakinaraziko dute.** Bizi, batera jarri eta entzundakoaren arabera, galdera egingo diote beren buruari:

**Elkarrizketan jarduteko eta Espirituari entzuteko gaitasunari dagokionez, zein hiru urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak elkarrekin joate horretan aurrera egiteko?**

## **3.- AZKEN OTOITZA**

**Gure Aita, zeruetan zarana...**

# Adsumus, Sancte Spiritus

Laguntza-erregua Espiritu Santuari sinodo-bilerari ekin aurretik

Hemen gauzkazu, Espiritu Santua,  
zeure izenean batuta.

Gure benetako aholkulari zarena:  
zatoz guregana, gure alde egin,  
sartu gure bihotzetan.

Erakutsiezaguzu bidea  
erakutsi helmugara nola iritsi.

Ez gaitzela okerreko bidetik joan,  
makal eta bekatariei gertatzen zaien bezala

Ezjakintasunak ez gaitzala  
gezurrezko bideetatik eraman.

Emaiguzu bereizketaren dohaina,  
gure ekintzen oinarrian ez dadin  
aurreiritzi eta burutapen faltsurik izan.

Eraman gaitzazu batasunera zuregan,  
egia eta zuzentasunaren bidetik  
aldendu ez gaitzen,  
lur honetako erromesaldian  
betiko bizia jadesten ahalegindu baizik.

Zeuri eskatzen dizugu,  
Aita eta Semearekin bat,  
sasoi eta leku orotan jarduten duzun horri,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Vatikano II.aren saio bakoitzaren hasieran, 'Adsumus Sancte Spiritus' (latinezko jatorrizko otoitzaren hasiera: "Zure aurrean gagoz, Espiritu Santua") otoitz otoitza egin zen. Sevillako San Isidorori (k. 560-636) egotzi zaion otoitz hau aspalditik eta luzaroan egin izan da Kontzilio, Sinodo eta Elizaren beste hainbat bileratan. Sinodo-seneko bideari ekiteko deialdia egitean, otoitzak arren eskatzen dio Espiritu Santuari guregan jardun dezan graziaz beteriko elkarte eta herri izan gaitzen. 2021-2023 Sinodoari begira, bertsio sinplifikatua proposatzen dugu, edozein liturgia talde edo batzarrek errazago erabil dezan.